

«Goi mailara iristeko, gogoazateatea ezinbestekoa da»

Nely Carla Akaba Bera Bera eskubaloi taldeko jokalaririk gazteenetakoa dugu. Bidebietako neska honek 19 urte ditu eta duela hiru urte jokatu zuen lehen partida talde nagusiarekin. Penalti jaurtiketetan iaioa da Nely, eta horri esker, partida batzuetan, taldeko golegile nagusia izan da.

Raul Perez

Zer moduz dago taldea denboraldiko azken txanpa honetan?

Pozik eta itxaropentsu, batez ere joan den larunbatean, Bidebietan, bigarren postuan dagoen Eldari irabazi geniolako. Gutxienez, bosgarren postua lortu behar dugu, lehen bost taldeek Europarako txartela lortuko dute eta. Dena dela, ia bezala, oraindik ere denboraldia laugarren postuan amaitzeko aukera dugula usate dut. Niri dagokidanez, azken denboraldietan baino hobeto ari naiz, gorabehera

gutxiagorekin, alegia.

Zenbait partidetan gol asko sartu dituzu, batik bat penaltiak. Zein da penaltietan asmatzeko sekretua?

Aspaldi hasi nintzen penaltiak jaurtitzen, baina egia esan, ez dago sekretu handirik, eta ez pentsa entrenamendu saioetan penaltiak botatzen luze aritzen garenik. Nik, gehienetan, zoruaren kontra botatzen ditut, errazagoa baita, boatearen efektuarekin, atezaina gainditzea. Argi dago, hala ere, penaltiak jaurtitzea erantzukizun handia dela; batzuetan, azken segundotan botatako penalti bati esker, partida irabaz daiteke.

Talde nagusira igo izanak asko aldatu al du zure bizimodua?

Hamasei urterekin jokatu nuen lehen partida talde nagusiarekin eta jakina, kosta egin zitzaidan Ohorezko Mailako erritmoari neurria hartzea, batez ere, beheko mailetakoa baino gogorragoa delako. Dena dela, normala den bezala, gero eta erosoago ikusten dut nire burua. Talde nagusian nagoenez, bestalde, egunero entrenatu behar izaten dut, baina era berean, batxilergo ikasketekin jarraitzen dut. Azkenik, hamaika lekutara joatea atsegin



dut; bidaiak lagungarriak dira taldekideekin harremanak sendotzeko eta munduko txoko asko ezagutzeko. Egia da batzuetan bidaiak luze samarrak direla, baina nik lo egiteko edo musika entzuteko aprobetxatzen dut.

19 urte besterik ez dituzu. Esaiguzu zein dohain dituzun eta zein esparrutan hobetu beharko zenukeen.

Partidan, une oro, zuzen jokatu; hobeto defendatu... Oraindik gauza asko ditut hobetzeko. Nire bertute nagusia, aldiz, urrutitik jaurtitzeko gaitasuna da. Entrenatzaileak dohain hori erabili behar dudala esaten dit askotan; hau da, jaurtitzera koan nire buruarekin konfiantza handiagoa izan behar dudala.

Zer behar da lehen taldera jauzia emateko?

Nire ustez, ezinbestekoa da gogoazateatea. Ni 12 urterekin hasi nintzen eskubaloiari jokatzeko, gustuko nuelako, eta egun eskubaloiari gozaten jarraitzen dut. Behe mailetakoa taldeetan ezagututako zenbait neska, ordea, aspertu egin ziren eta jokatzeari utzi zioten.

Barriola-Olaizola II partida Donostian

Larunbatean, maiatzak 3, eskuz binakako pilota txapelketaren finalerdietako ligaxkakoko lehen partida jokatu da Atano III pilotalekuan. Bertan Abel Barriolak eta Aimar Olaizolak neurtuko dituzte indarrak. Bi pilotariok bitan jokatu zuten elkarren kontra Iazko Lau 1'erdiko Txapelketan eta bietan Olaizola nagusitu zen.



«Nire bertute nagusia urrutitik jaurtitzeko gaitasuna da»